

ALBERTO SURIO

Bi Gaur egun geratzen zaizkio.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkia: Dani Blanco



«EiTB zen legegintzaldiko patata beroa»

Egun gutxi geratzen zaizkio EITBko behin-behineko zuzendaritzari.

Behin-behineko zuzendaritza, lehen aldia entzuten dudana. Ekaitz perfektua gainditzea lortu dugu: iraultza teknologikoa, baliabide ekonomiko urriagoak, LTDaren eskaintza berria. Eta barkua norabide onean jarri dugu.

Barkuari "Patxi Lopezen irrati-telebista" esan diote; kapitainari "eguraldi maparen zuzendaria". Nola pasako da historiara zure agintaldia? Une zail bati egin diogu aurre pluraltasun izpirituarekin, zerbitzu publikoarekin, profesionaltasun eta gertutasunarekin. Joaten garenean gure lana objektiboago ikusiko da, erresumin gutxiagorekin.

Zu izan zara EITB gobernatu duen lehen independentea. Harritzen nau horregatik zure gestioa partidistatzat hartu izanak.

Batzuek uste dute etxe honen jabe direla eksklusiban eta ez dute jasan berau gobernatu ez izana. Lohi artean lan egin behar izan dut, baina kritikak kiroltasunez hartu behar dira.

EiTBko langileenak, esaterako? Haserre samar izan dituzu.

Ez beste medio publikoetan baino gehiago. Enpresa hauetan normala izan ohi dira interes konfliktoak. Gainera, profesionalen eskubideak bermatuko dituen erredakzio estatutu bat utziko dugu, langileen ia %79k babestu duena.

Audientzia portzentajeak ez dira izan hain onak. LTDaren panorama berriak zuzen eragin du audientzietan. Azken hilabeteetan buelta eman diogu halere egoerari.

Ados, LTDa. Autokritika esaten zaio horri.

Zerbitzu publiko plural baten, euskara eta balore demokratikoekiko konpromisoaren eta gertutasun programazio baten alde egin dugu lan. Batzuk arrazoi ideologikoengatik urrun sentitu badira ere, EiTBk bere publikoarekin duen lotura emozionala oso sendoa da oraino.

Baina EITBren zuzendaritzaren borondatea izan da publiko hori handitzea, Nafarroan adibidez?

Hasieratik lan egin dugu horren alde, beti ere Nafarroako Gobernuarekin batera eta ekonomikoki bideragarri izango den konpromisoarekin. Sentitzen dut akordioa ezin lortu izana.

Beste agintaldi bat EITBk euskarari behar duen garrantzia eman gabe...

ETB1en aldeko gure apustua erreala da. Garai zailotan ere, fikziozko proiektuak martxan jarri ditugu. Erronka nagusia baliabide ekonomiko gehiago izatea da euskarazko edukiak sortzeko.

Hizkuntzari dagokionean, zein behar du EITBren etorkizunak?

Akordio estrategiko handi baten arabera. Orain uste dut eskaintza elebiduna dela egoia, baina ez du zertan betierekoa izan. Hori bai, ez zait iruditzen errealista, eta bai akatsa, gatzelaniazko kateak kentzea.

Meritu bat ez dizut ukatuko: legegintzaldiko polemika gai nagusietakoa bihurtu izana EITB.

Ez ote den gehiegixko. Hasieran handiagoa izan zen nahasmendua. Segur aski EITB zen legegintzaldiko patata beroa. ■

